

IDEIA:

Gure proiektua ispilu adimendun bat da, teknologia aurreratua erabiltzen duena erabiltzaileei arropa nola geratzen zaien ikusteko aukera emateko, aldatu beharrik gabe. Horrez gain, outfit-ak gomendatzen ditu, erabiltzaileek gogokoenak gordetzeko aukera ematen die eta, horrela, janzteko prozesua errazten du. Bi bertsio ditugu: gorputz osoko ispilu bat eta aurpegirako ispilu txikiago bat. Azken honek makillajea eta ilea nola egin gomendatzen du, erabiltzailearen itxura hobetzeko aholku pertsonalizatuak emanez.